

1.

Garbiketa

AMESGAIZTOAK ESNARAZI DU SHEENA ETA, segundo milarenean, izozkailura joan zaio gogoa.

Koltxoiko malguki batek bultzatu izan balu bezala altxatu da ohetik. Txapinak trakets sartu ditu, eta, erdi oinutsik, ia tatarrez, etxetik atera, eta alboko etxolara abiatu da. Etxola itsua da, leihorik gabea. Argia piztu du eta ia espazio osoa hartzen duen izozkailu handiaren estalkia altxatu du. Hor dago Manu, more, zerraldo. Sheenaren amesgaiztoan Manu alegera sartu zaio logelan, *egun on, maitia*, xuxurlatu dio belarrira eta musua eman dio masailean, irribarretsu.

Manu nekez egon liteke bizirik. Zaldi bat akabatzeke moduko dosia jarri zion bart baratxuri-zopan, zerraldo uzteko lain. Kilo bakoitzeko 800 mg pentobarbital sodiko emanda, ez dago amaren seme-alabarik berpiztu daitekeenik, kiloko 550 mg emanda ere edozein animalia akabatuko zuen eta. Zuhur jokatu du Sheenak.

Berriz jarri ditu jaki-poltsak Manuren gainean, ilarak, menestra, arraina, itsaski-paella eta bildotsa –Altsasuko ferian erositako lau kiloko bildots ederra–, eta kutxatzarra itxi du indarrez. Bart nekez sartu zuen metro eta hirurogeita hamabosteko gizona 1400 x 660 x 860 milimetroko kutxan. Handiegia iruditu zitzaion erosi zutenean. 398 litrokoa. Zertarako hainbeste, zioen Sheenak. Txiki begitandu zaio orain. Ona zuen ia-ia ez zuela zaratarik ateratzen, 42 dB zioen dendariak, eta kontsumo handikoa ez izan arren (277 kwh, dendaria temati), temperatura minus 18 eta minus 25 graduren artean gordetzen zuen, 37 orduz gutxienez elektrizitatea moztuta ere. Horregatik erosi zuten izozkailu hura hain zuzen, garestiagoa izan arren. Hortxe izango du Manu zain, Sheenak zer egin erabaki arte.

Tea gosaldu du, tostada pare bat gurinaz eta marmeladaz igurtzita eta, bitartean, hurrengo pausoak pentsatu ditu. Asteburu osoa du aurretik. Leihotik begiratu du. Udaberria izan arren, udazken itxurako egun grisa dago, etxean biltzera gonbidatzen duen eguraldi petrala.

Manuren arrasto oro ezabatuko du etxean lehenik. Pentsatu eta egin. Logelako armairutik hasi da eta zarama poltsa beltz, sendo eta erraldoian sartu du arropa guztia, bai eta tiraderetan zeuden elastikoak, gantzontzilloak eta galtzerdiak ere. Ohe-mahaian gordetzen dituen gauza apurrak ere poltsa berean sartu ditu, aspirinak, preserbatiboak eta paper solteak.

Sukaldera joan da beste poltsa baten bila eta bertan jarri ditu zapatak eta komuneko traste guztiak: bizarra egitekoa, orrazia, hortzetako eskuila, kolonia eta desodorantea. Sukaldera bueltatu da berriz ere eta mahai gainean duen *check-list* zerrendatik lehenengo bost ilarak ezabatu ditu: armairua, tiraderak, ohe-mahaia, oinetako altzaria eta komuna. Listo.

Poltsa txikiago bat hartu du eta lanerako txokora joan da. Lan-mahaiko tiraderan dituen paperak sartu ditu poltsan, gutunak, fakturak, lan-kontratuak, ordezeko betaurrekoak eta kartera. Poltsa berean jarri ditu apalategiko argazkiak eta hozkailuan itsatsiriko imanak. Poltsa txikiago hori itxi eta aparte utzi du.

Bazkaria berotzen den bitartean, egitekoen zerrendan idatzi du falta zaiona. Ezin du ahaztu bizikleta, kortan gordetzen duena. Egitekoen artean idatzi du ordenagailua eta mugikorra guztiz formateatu behar dituela, *youtube*-ko tutorialen batek lagunduta.

Bazkaldu ondoren siesta egin du sofan, telebista piztuta. Zenbat eta eskasagoa izan saioa are eta hobeto hartzen du loak. Esnatutakoan ez du joan behar izan kortara izozkailuan zer dagoen gogoratzeko.

Sukaldean tea prestatzeari ekin dio, logalea uxatzeko. Leihora hurbildu da kiharari bi eskuen artean helduta. Goizeko kolore bera du zeruak, iluna. Euria dakar. Asteburuan zehar lurra mugitzen

hasi nahi badu, hobe du garbiketa lehenbailehen amaidzea.

Larrosak erosi nahi ditu Sopelako *Garden Center* negutegian eta heriotzorriak, geranioak, ongarrria eta pala bat ere bai. Bihar ekingo dio loreak landatzeari, ala datorren asteburuan, gauez euria egiten badu. Presarik ez du, egia esateko.

Tea amaitu duenean gainbegirada eman dio etxe osoari, sukaldetik hasita eta kortaraino. Gelaz gela, armairuz armairu etxe osoa miatu du goitik behera. Liburuak sartzeko kartoizko kutzak ekarri beharko ditu, hiruzpalau. Gutxi batzuk, edonola ere.

Eskertzekoa du Manu ez dela –ez zela– gauza asko metatzekoa, zorionez. Ekipaje arinekoa zela zioen berak, ez zuelako nahi objektuek inora lot zezaten. Sarri esaten zuen gauzek espazio batera errotzen zaituztela eta berak nahiago zuela aske ibili eta motxila txikiaz bidaiatu. Ordenagailua bai, ezinbestez. Ordenagailua noranahi eramaten zuen. Afizio eta ofizio zuen. Horrela ezagutu zuten elkar, ordenagailuari esker. Haren erruz. Haren harira, edonola ere.